



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2017KO EKAINAREN 27AN
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Xabier Arregi Iparragirre.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ezin-etorria adierazi dute: Irene Gatzia Palaciosek eta Josune Estella Arranzek.

1.- AURREKO AKTAREN ONESPENA:

*** 2017KO EKAINAREN 20KO BILKURAKO AKTA.**

Batzarkideek, 2017ko ekainaren 20ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- USURBILEN HUTSIK DAGOEN MERKATARITZA LOKAL BATEAN JARDUERA
EKONOMIKO BERRI BAT IPINI NAHI DUEN EKINTZAILEARENTZAT 2017
URTEKO DIRU-LAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA.**

Esp.zk.: 2017-0020

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, 2017an jarduera ekonomiko berri bat abian jarri nahi duen ekintzailearentzat lokalaren alokairuan laguntzera bideratuko du diru-laguntza hau

Oinarri hauen helburua da Usurbilgo Udalaren diru-laguntzen oinarri erregulatzaileak ezartzea, norgehiagoka erregimenean, 2017. urtean jarduera ekonomiko berri bat abian ipini nahi duen edonorentzat, pertsona fisiko nahiz juridikoa, ekintzaile interesatuaren bizilekua edozein izanda ere, Usurbil edo beste udalerrri bat. Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A



Usurbilgo Udala

Lehenengoa: 2017an Usurbilen hutsik dagoen merkataritza lokal batean jarduera ekonomiko berri bat ipini nahi duen ekintzailearentzat diru-laguntza oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko 1.5000.481.241.00.02 (A 295-2017) partidatik ezartzen diren 7.200 €

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Eskaearak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2017ko urriaren 31 arte

Bostgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

3.- 2017 URTEKO HASIZ HAZI BEKAREN OINARRIAK ONARTZEA.

Esp.zk.: 2017-0008

Ikusirik

Usurbilgo Udalak, 2017an proiektu berri bat duen ekintzaileari laguntzeko bideratuko du Hasiz Hazi beka.

Beka hau Kabiene eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzan oinarritzen da. Proiektu berri bat duen ekintzaileari, urtebeteko egonaldia diruz ordainduko zaio Kabiene elkarteak duen elkarlan gunean, lanerako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izan dezaten.

Beterri -ekinean zerbitzutik tutorizazio bat ere emango da, eta enpresa abian jartzea eta finkatzearekin lotutako laguntzak ere eskainiko zaizkio, horrela badagokio

Oinarri hauen helburua da, Usurbilgo ekintzaileak bere enpresa proiektua garatzen duen bitartean laguntzeko baliatuko diren arauak biltzea, norgehiagoka erregimenean eta 2017. urterako.

Eta hau guztia kontuan izanik Usurbilgo Udalaren diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren III kapituluaren I. Atalak ezartzen duenari jarraiki.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituen.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA



Usurbilgo Udala

Lehenengoa: 2017rako Hasiz Hazi bekaren oinarriak onartzea, ebazpen-proposamen honi eranstean zaizkiolarik.

Bigarrena: Diru-laguntzaren zenbateko osoak ez du gaindituko 1.5000.481.241.00.02 (A 296-2017)partidatik ezartzen diren 2.178 €

Hirugarrena: Oinarrien iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

Laugarrena: Eskaerak aurkezteko epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, 2017ko irailaren 30 arte

Bostgarrena: Oinarrien berri kontu-hartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 9:15ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.